

INAUTERI, ARATUSTE, KARNABALAK

Autserre eguna da Garizuma aldiaren asierako eguna. Eta garizuma aurreko damekan, ain zuzen, Bizkaiko erri askotan, eta lagunarte giroan, “basokoipetsuak”, “sasikoipetsuak”, “basatosteak”, “kanpora-martxoak” edo “txitxiburduntziak” ospatuko ziran.

Egunotan, inauteri, aratuste edo karnabal egunetan gagoz bete-betean. Zuberoako “maskaradak”, Lapurdi ta Benaparroako “kabalkadak”, Naparroako Ituren eta Zubietako “zanpantzarrak” martxan doaz. Arabako Zaldueñdon “Markitosen” pasialdia eta bere azken-epaia ospatuko dabez. Mundakako “Atorrek-musika taldea” osotzen dabenak or dabiltz kantu-kantari. Markinako zaragidantzakoak, “Artza” lagun dabela, euren kalejirak egiten diardue. Baita beste karnabal talde guztiak ere egun auetan urtenqo dabe kalera euren jaiak ospatzera.

Jai oneek, asiera baten, antigualeko “negu-jaietan” sartuta egozan ziur asko. Baina jai oneen zentzu zakona ulertzeko baserri ta nekazaritza giroan egokitu bearko gara. Izan ere, sasoi onetan, uzta-batzea eginda dago, abereak kortaratu dira, eta aziak ere inda dagoz. Negua da. Esan daiteke izadi guztia ilda lez dagola.

Ori dala-ta, gure antxinako asabak, jai oneetan erabilten zituen erritu majikoen bidez, onako oneek nai zituen lortu: espiritu qaiztoak, parte txarrekoak eta basa-piztiak uxatzea, eta izadiari zor jakon gurtza emotea, laster agertuko zan udabarriak oparotasuna, ugal tasuna ta bizitza ekarri egizan. Ondo gogoan izatekoa da prozesu onetan ikusten dan jokia: negua-udabarria, azia ereitea-azia ernetea, eriotza-bizitza. Erlijio guztietan ikusten dan sinbolismoa.

Beste alde batetik, olako negualdiko jai batzuetan, gizonkil (muñeko) aundi batzuk erabilten ditue, adibidez, Naparroako Lantzen “Miel Otxin”, Zaldueñdon “Markitos”, Lapurdin “Zanpantzar”, beste leku batzuetan “Xiganteak”, “Galtzuzko qizona” etabar, eta jaien amaieran erriko plazan erreten dira, urte guztiko Pekatuak eurei leporatu ta gero. Izan ere, gizon-emakume guztiok, geure kontzientziak ustu eta garbitzeko bearritzana sentitzen dogu. Eta suak ere garbitu egiten dau. Sua erlijio guztietako sinbolo bat da.

Kristautasuna eldu zanean, Eleizeak kristautu egin zituan olako jai paganoak. Era berean, Eleizeak oneek neguko jai paganoak ere kristautu egin zituan, sasoi onetan Garizumea ezarriaz. Pazkoa edo Jesusen biztuera prestatzeko aldia da garizumea. Eta garizumeak, ain zuzen, leen neguko jaiei buruz aitatu doguzan sinbolo ta adierazgarriak daroaz: adibidez, negua-udabarria, eriotza-bizitza, Pekatua lurperatu-bizitza barri bat biziteko, eriotza-berbizkundera, bariku santu-pazko eguna. Guzti au, jakina, Jesukris togaz lotuta: Jesus geugaitik gizon egin zan, gure Pekatuak leporatuz kurutze baten il zan eta berbiztu, zeruko atea geuri zabaltzeko. Gogoratu daiguzan leen aitatu doguzan gizonkilak, zelan leporatzen deutsezan erriko Pekatu guztiak, azken baten sutan erreteko.

Alan ere, karnabal-karnabalak edo aratusteak, Erdi Aroan sortu ziran. Eta asiera baten jai kristauak izan ziran. Au da, olgantzak ta alaitasunezko jai batzuk ziran, ganean etorren garizuma luzerako indarrak artzeko. Izan ere, garizumea, otoitz, Penitentzi, aragi-izte ta konbertsino aldia da. Eta emendixek, ain zuzen, jatorke etorri ere izena jai oneei, aragi iztetik, aratusteak edo aragi-izte egunak, “carnestolendas”, karnabalak.

Datorren Garizuma onetan, ba, zabal-zabal jarri daiguzan gure biotzak Jaungoikoaren Berbea argi ta garbi onartzeko moduan.

Garizuma au izan dakigula bide egokia Jaunagana biurtzeko eta Pazkoetan Jesukristogaz batera visitas barri batera biztuteko.

Garitaonandia'tar Jesús-Fko
Begoñako Santutegiko
Erretora